

## *Etxean Kontu Kantari*

### *Bolon bat eta bolon bi*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Bolon bat eta bolon bi,  
bolona putzura erori.  
Bolon, bolon, bolona,  
gure haur da haur ona  
bolon, bolon, bolona.  
Erori bazen, erori,  
ez da geroztik ageri.  
Bolon, bolon, bolona,  
gure haur da haur ona,  
bolon, bolon, bolona...

Kantuari eskuaren mugimendua gehitzen zaio. Eskua alde batera eta bestera mugitzen da, haurra begira-begira geratu eta jolasean arituko da edota loak hartuko du.

### *Joxe Moxe gitarra*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Joxe Moxe gitarra  
ahuntzak hainako bizarra.  
Zopa gutxi janda  
Unai kaxkarra!

Haurrari kantatzen zaio jaten ematen zaion bitartean. Izenak aldatzen dira haurrarekin jolasean aritzeko.

Atxia Motxia perolin pan

Atxia motxia perolin pan  
Nire semea errotan.  
Errotara nindoala topa nuen asto bat.  
Kendu nion buztan bat,  
Ipini nion beste bat:

Errota txikinak klin-klan.

Atxia motxia perolin pan  
Nire semea errekan.  
Errekara nindoala topa nuen erbi bat.  
Kendu nion begi bat,  
Ipini nion berri bat:  
Erreka txikinak plist-plast.

Atzamarrak kontatzeko jolasa da hau, lagun artean gauzatzen da. Jokalari guztiak atzamarrak bistan uzten dituzte eta jolasaren gidak, olerkia esaten duen bitartean atzamarrak banan bana zenbatuko ditu olerkia dirauen bitartean. Olerkiaren bukaeran norbaiten atzamarrarekin topo egingo du. Jokalari guztiek ihes egingo dute eta atzamarraren jabeak harrapatu beharko du hurrengo joko- gidaria.



### Hain urrin etxe poxpola

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Hain urrin etxe poxpola, ola, ola!  
Tximinitik gora kea dariola, ola, ola!  
Gaintxoan arbola zelai erdian,  
erreka pol - pola etxe atarian:

Trailara, eta trailara  
dena txiki- txikia, txikia horra.

Jo atexoko txilina, ola ola!  
Sutondoan kuzkur lo - lotan mitxina, ola, ola!  
Sutan danbolina gaztain erretzen,  
lapikoan gal - gal babak egosten:  
Tra lara...

Badator etxeoandrea, ola, ola!  
Begotxoak ñir - ñir, ahoan irria, ola, ola!  
Zuri - zuri ilea eta buru - zapia,  
zuri - gorri umea jaio - berria:  
Trala rala...

Magaltxoan estutzen du, ola, ola!  
Urrumakatzen du, urrumakatzen du, ola, ola!  
"Gure txikitxo, egizu lo - lo,  
lo - lo txikitxo bat, apapa gero":

Trala lara...

Keinuz lagunduta kanta daiteke hau.

### Arriola marriola

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainerik*. Galtzagorri elkarte.

Arriola marriola kin kuan kin;  
Portan zela portan min;  
Arrexinalet arrexinalet;  
Segerren megerren,  
Kirun karun, pek!

Harrapaketa jolas bati hasiera emateko.

### Koko miko koko miko

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri Elkarte.

Koko miko koko miko,  
geldirik hor mutiko.  
Koko miko mikotin  
kraskinola kraskitin.

Koko miko koko miko  
sugea etorriko,  
mizto zorrotza txistuz  
zu nondik irentsiko.

Koko miko koko miko  
amak burua hautsiko  
suge zaharra utziko du  
hondatuta betiko.

Jolasean eta kantuan aritzeko. Irakurketa jolasak ere egin daitezke hitzak txarteletan idatzita.  
“Jolas molas” koadernoan dago.



### Etorri da amona

Lertxundi, A. eta Olariaga, A. (2011). *Maria Goikoak batbirulau!*. Erein (Klis-Klasikoak).

Etorri da oilarra eta kukurruku!, amona esnatu du.  
Etorri da amona eta purra-purra-pur!, artoa bota du.  
Etorri da oiloa eta kle-kle-kle!, sabela du bete.  
Etorri da oilanda eta klu-klu-klu!, zizarea jan digu.  
Etorri da oilaskoa eta kla-kla-kla! a ze zalaparta.  
Etorri da koloka eta klo-klo-klo! oilategian harro-harro.  
Etorri da txita eta txi-txi-txi, jolasean dabil.  
Etorri ere etorri da miru-miru-mi!, oilo-jale ausarta eta  
txi-txi-txi, txita irentsi du.  
Klo-klo-klo, koloka jan du.  
Kla-kla-kla, oilaskoa bazkaldu du.  
Klu-klu-klu, oilanda mokoratu du.  
Kle-kle-kle, oiloak du ase.  
Kukurruku, oilarra uxatu du.  
Purra-purra-pur, amona beldurtu du

*Anjel Lertxundi*

Kontaketa bihurri hau “Maria Goikoak batbirulau!”, liburuan aurkituko duzue, Antton Olariagak ilustratua.